



ALKATE DEKRETUA

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

2020ko otsailaren 18an liburuzain laguntzaile lanpostua hornitzeko prozesua deitzea eta oinarriak argitaratzea erabaki zen. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko martxoaren 2an oinarriak argitaratu ziren eta hurrengo egunetik izena emateko epea ireki zen. Ondoren, oinarrien arabera behin behineko zerrendak onartu eta epaimahaia izendatu ziren, erreklamazioetarako epea irekiaz. Orain berriz, behin betiko zerrendak onartu eta lehenengo azterketaren data izendatu behar dela. 2021. urtean zehar frogak egin ondoren epaimahaiak Alkatezari "liburuzain laguntzaile" plazarako pertsona hau izendatzea proposatu dio:

- Breogan Estevez Goñi.

Proposatutako izangaiak ezarritako epean 10. oinarrian eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du eta egokia bada, mediku azterketa ere gainditu beharko du.

Deialdiko 11. oinarrien arabera, proposatutako izangaiak praktiketako funtzionaria izendatuko da, aurretik esandako agiriak aurkeztu eta gero. Izendatutako izangaia izendapena jakinarazten zaionetik hurrengo 20 balioduneko epean hasiko da lanean. Praktikaldiak hamabi hilabeteko iraupena izango du eta nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da.

Halaber, puntuazioaren hurrenkera kontutan hartuz lan-poltsa osatuko da.

Beraz, Epaimahaiaren proposamena kontutan harturik, zera:

ERABAKI DUT

LEHENENGO: Liburuzain laguntzaile plazarako praktikaldiko funtzionario bezala, lortutako puntuazioaren arabera, Breogan Estevez Goñi izendatzea.

BIGARRENKO: Aipatutakoak liburuzain laguntzaile plaza, Administrazio bereziko Eskala, Teknikari laguntzaile Azpieskala, C1 sailkapen taldera adskribatzen da praktikaldiko izaerarekin hamabi hilabetez.

HIRUGARRENKO: Praktikaldia nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da.

LAUGARRENKO: Izendatutako izangaiak izendapena jakinerazten zaionetik hurrengo 20 balioduneko epean hasiko da lanean.

BOSTGARRENKO: Erabaki honen berri interesdun guztiei ematea, baita plaza huts hori betetzen ari denari ere. Halaber, praktiketako funtzionarioaren izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal web orrian argitaratzea.

SEIGARRENKO: Deialdiko lehenengo onarriak jasotzen duen moduak, froga guztiak gainditu eta izendatuak izan ez diren izangai hauek honako hurrenkeraren arabera lan poltsa osatuko dute.



ZK.	1.ABIZENA 2.ABIZENA IZENA	NA	OPOSAKETA GUZTIRA	MERITUAK LANA	MERITUAK FORMAZIOA	GUZTIRA
1.	MINER MUNDUATE AMAIA	***6344**	53,05	4,00	3,00	60,05
2.	USTARROZ ESNAL GARBIÑE	***5945**	54,85	4,00	1,00	59,85
3.	MARTINEZ JUANABERRIA EDURNE	***4776**	53,77	4,00	0,74	58,51
4.	TELLERIA GONZALEZ GARIKOITZ	***5859**	51,44	4,00	3,00	58,44
5.	LOPEZ LARRAYOZ ARANTZAZU	***6357**	48,44	4,00	3,00	55,44
6.	ALVAREZ DE EULATE LASA ITSASNE	***6179**	46,25	3,80	1,00	51,05
7.	OLASO LOPEZ VIRGINIA	***3641**	41,46	2,90	3,00	47,36
8.	LARRARTE ESNAL LIBE	***1229**	44,90	1,30	1,00	47,20
9.	ERDOZIA IBAÑEZ OLATZ	***2758**	46,08	--	1,00	47,08
10.	LETURIA DELFRADE ANE	***3343**	42,33	1,30	1,00	44,63
11.	ELORTZA LETAMENDI IRANTZU	***7754**	38,75	4,00	1,00	43,75
12.	AGIRREZABAL PERTUSA LORE	***7762**	39,08	1,90	1,00	41,98
13.	IRAOLA ARANZADI PAULA	***4695**	37,21	1,60	3,00	41,81
14.	MICHELENA UNSAIN JESUS MARIA	***7900**	40,54	0,90	--	41,44
15.	GARCIA OTAEGI SAIOA	***2269**	38,07	1,30	1,00	40,37
16.	ZULAIKA ARCA ARANTZAZU	***0329**	38,38	--	--	38,38

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatezaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu orde, edo berraztertzeko errekurtsoren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziazko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena alkateak, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua.

ALKATEA
Agurtzane Solaberrieta Mesa

Nire aurrean
IDAZKARIA
Garazi Etxeberria San Miguel



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUf9e8f351-5ffc-49ab-9aec-17a7f95f8d2f**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021ID060073-ID06_Dekretua/ID06_Dekretua (ESTEVEZ GOÑI BREOGAN)